

XV. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL ARAUDIA

Data:	2026ko maiatzaren 17a
Irteera eta helmuga:	Zegama (Gipuzkoa)
Irteera ordua:	10:30
Helmuga itxiera:	12:00
Distantzia:	10,4 Kilometro
Gorako desnibel metata:	505 metro
Beherako desnibel metata:	511 metro
Gehieneko altuera:	735 metro
Gutxieneko altuera:	296 metro (Zegama)
Zailtasuna:	Ertaina

Izen emateko data	<p>Gehienez 100 korrikalarik parte hartu ahal izango dute. Aurre-inskripzioa urtarrilaren 26tik otsailaren 6ra izango da eta 1€ko kostua izango du.</p> <p>Antolakuntzak 10 dortsal erreserbatuko ditu lasterketak dakartzan konpromisoak erantzuteko.</p> <p>Antolatzaileek dortsalak gordeko dituzte azken edizioko TOP15ari (emakumeak eta gizonak) emateko.</p> <p>Geratzen diren dortsalak (60), 100 parte-hartzaile gehienez bete arte, zozketatu egingo dira otsailaren 20an.</p> <p>Aurrez aipatu bezala, dortsala lortzen duen korrikalaria ez da zozketa prozesuan sartuko.</p> <p>Lehenengo aldiz zozketan parte hartzen duten korrikalariek, zozketarako zenbaki bakar bat izango dute. Aurreko urteetan zozketan parte hartu eta dortsalik suertatu ez zaion korrikalariari, zenbaki bat gehiago gehituko zaie, zozketan parte hartu eta dortsalik izan ez duten urte bakoitzeko. Korrikalariaren bati dortsala suertatu bazaio aurreko urteren batean, hurrengo urteetako zozketak bakarrik hartuko dira kontutan.</p>
-------------------	--

XV. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL ARAUDIA

Izen emateko modua	Kronoak.com web orrian.
Parte hartzeko adina	16 eta 18 urte bitartean. Urtea hartuko da kontutan.
Derrigorrezkoa	Gurasoek sinatutako baimena.
Derrigorrezko materiala	Lasterketa osoan zira eramatea derrigorrezkoa da, mauka luzeak eta bakoitzari dagokion neurri egokia izan beharko du, baita hornidura likidorako edalontzia eta manta termikoa ere.
Dortsalen banaketa	Larunbatean 17:00-19:00 bitartean eskolako gimnasioan eta igandean 07:00-08:30 bitartean elizako arkupeetan jaso ahal izango dira dortsalak. Dortsala soilik jabeak jaso ahal izango du bere identifikazioa erakutsiz.
Denbora muga	Lasterketa amaitzeko denbora muga dago, 12:00etan itxiko da Junior Trail lasterketarako helmuga